2025ID290004

# ALKATEAREN D25/0842. DEKRETUA

**Aldez aurreko kontsulta publikoa egiteko *Pasaia, Oiartzun eta Lezoko udalerrietako gizarte-bazterkeria egoeran dauden pertsonentzako Eguneko Arreta Zerbitzuaren Erregelamenduarena.***

Sometimiento a consulta pública previa *del Reglamento del Servicio de Atención Diurna para personas en situación de exclusión social de los municipios de Pasaia, Oiartzun y Lezo.*

Udalerri honi dagokio herritarrei gizarte-arreta bermatzea eta haien ongizatea sustatzea, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legean ezarritakoaren esparruan. Lege horrek Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazioak eskuratzeko eskubide subjektiboa aitortzen du, eta hurbiltasunean eta ikuspegi komunitarioan oinarritutako esku-hartze eredu bat definitzen du, bai eta udaleko gizarte-zerbitzuek zerbitzuak ematean duten erantzukizuna ere, hala nola, Eguneko Arreta Zerbitzua, sistema horren katalogoan jasota dagoena.

Considerando que corresponde a este municipio garantizar la atención social a la ciudadanía y promover su bienestar, en el marco de lo establecido en la Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales, que reconoce el derecho subjetivo de acceso a las prestaciones del Sistema Vasco de Servicios Sociales, y que define un modelo de intervención basado en la proximidad y el enfoque comunitario, así como la responsabilidad de los servicios sociales municipales en la prestación de servicios como el Servicio de Atención Diurna, incluido en el Catálogo del citado sistema.

Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretuaren 33. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako Eguneko Arreta Zerbitzua udalaren eskumenekoa da.

Considerando que, de conformidad con lo previsto en el artículo 33 del Decreto 185/2015, de 6 de octubre, de cartera de prestaciones y servicios del Sistema Vasco, el Servicio de Atención Diurna para personas en situación de exclusión es de competencia municipal.

Interes orokorrekoa da, erregelamendu bidez, Pasaia, Oiartzun eta Lezoko udalerrietan gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsonentzako eguneko arreta-zerbitzua arautzea.

Resultando de interés general establecer, mediante reglamento, la regulación del Servicio de Atención Diurna dirigido a personas en situación de exclusión social en los municipios de Pasaia, Oiartzun y Lezo.

Herritarrek erregelamendu-mailako arauak egiteko prozeduran parte hartuko dutela bermatzeko, eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikuluan xedatutakoa betez; ordenantza egin baino lehen, aurretiazko kontsulta publikoa egin behar da, herritarrek eta

Considerando que, con el objetivo de garantizar la participación de los ciudadanos y las ciudadanas en el procedimiento de elaboración de normas con rango reglamentario, y en cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 133 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas con carácter

ordenantzaren eraginpean egon daitezkeen ordezkaritza handieneko erakundeek zenbait alderdiri buruz duten iritzia jasotzeko, hala nola, ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoei buruz, hura onartzeko beharrari eta egokitasunari buruz, arauaren helburuei buruz eta egon daitezkeen bestelako irtenbide erregulatzaile eta ez-erregulatzaileei buruz.

previo a la elaboración de la ordenanza, debe sustanciarse una consulta pública previa para recabar la opinión de los ciudadanos y de las organizaciones más representativas que potencialmente se puedan ver afectados por el mismo, sobre una serie de aspectos como son los problemas que se pretenden solucionar con la iniciativa, la necesidad y oportunidad de su aprobación, los objetivos de la norma y las posibles soluciones alternativas regulatorias y no regulatorias.

Horiek horrela, indarrean dagoen legeriak ematen dizkidan eskumenak erabiliz, honako hau,

En virtud de las atribuciones que me confiere la legislación vigente,

**EBAZTEN DUT**

**RESUELVO**

**LEHENENGO**.- Pasaia, Oiartzun eta Lezoko udalerrietako gizarte-bazterkeria egoeran dauden pertsonentzako Eguneko Arreta Zerbitzuaren Erregelamendua egin aurretik, honako memoria hau (I. eranskina) jendaurrean jartzea, 20 egun balioduneko epean.

**PRIMERO**.- Someter a consulta pública la siguiente memoria (Anexo I), durante un plazo de 20 días hábiles, previa a la elaboración del Reglamento del Servicio de Atención Diurna para personas en situación de exclusión social de los municipios de Pasaia, Oiartzun y Lezo.

**BIGARRENA**.- Ekarpenak 20 egun balioduneko epean aurkeztu daitezke erabaki hau udal web gunean argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

**SEGUNDO**.- Las aportaciones se deberán realizar mediante registro de entrada municipal en el plazo de 20 días hábiles siguientes a la publicación del presente acuerdo en la web municipal.

**HIRUGARRENA**.- Kontsulta hau Udal honetako iragarki-taulan eta bere webgunean argitaratzea, herritarrek, erakundeek eta elkarteek egokitzat jotzen badute, gaiari buruzko iritziak helarazteko aukera izan dezaten, Udalaren sarrera-erregistro elektronikoaren edo aurrez aurrekoaren bidez.

**TERCERO**.- Ordenar la publicación de la presente consulta en el tablón de anuncios de este Ayuntamiento y en su sitio web para que la ciudadanía, organizaciones y asociaciones que lo consideren oportuno puedan hacer llegar sus opiniones al respecto a través del registro de entrada municipal electrónico o presencial.

**LAUGARRENA**.- Ebazpen honen berri ematea Udalbatzari, egingo duen hurrengo bilkuran.

**CUARTO**.- Dar cuenta de la presente Resolución al Pleno del Ayuntamiento en la próxima sesión que celebre.

2025ID290004

Sinatzailea Alkatea, Mikel Arruti Salaberria

Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen sinesgarritasuna ziurtatzeko jo interneteko orrialde honetara:
*Este documento se ha firmado electrónicamente. Para verificar la veracidad de este documento ir a la página de Internet:*
https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/53/AAAATPJR8.qYTj

I ERANSKINA

ANEXO I

| | | |
|---|---|---|
| Lezoko Unibertsitateko Udala | **Aldez aurreko kontsulta publikoa, Bazterkeria-egoeran dauden pertsonentzako Lezo, Oiartzun eta Pasaiako eta Eguneko Arreta Zerbitzuaren barne-araudi berriari buruzkoa**<br><br>Consulta pública previa sobre el nuevo reglamento de régimen interior del Servicio de Atención Diurna para personas en situación de exclusión en los municipios de Lezo, Oiartzun y Pasaia | **IFK/CIF** P2005700F<br>**Tel.** 943 521 094<br><br>Donibane kalea, 16<br>20100 Lezo<br><br>**GIZARTE ZERBITZUAK**<br>gizartezerbitzuak@lezo.eus |

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, arauak egiteko prozeduran herritarrek parte hartuko dutela bermatzeko, ordenantza-proiektua egin aurretik, kontsulta publikoa egingo da administrazio eskudunaren web-atariaren bidez. Bertan, etorkizuneko arauak eragin diezaiekeen subjektuen eta erakunde adierazgarrienen iritzia jasoko da, honako hauei buruz:

**1.- Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak.**

Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak arautzen du. GZESa arreta-sare publiko artikulatu bat da, erantzukizun publikokoa, eta pertsona, familia eta talde guztien gizarteratzea, autonomia eta gizarte-ongizatea sustatzea du helburu. Sustapen-, prebentzio-, babes- eta laguntza-funtzioa betetzen du, funtsean pertsonalak eta harremanetakoak diren prestazio eta zerbitzuen bidez.

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen helburu nagusiak honako hauek dira: autonomia pertsonala sustatzea

De acuerdo con lo previsto en el artículo 133 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, con el objetivo de garantizar la participación de los ciudadanos en el procedimiento de elaboración de normas, con carácter previo a la elaboración del proyecto de ordenanza, se sustanciará consulta pública, a través del portal web de la Administración competente, en la que se recabará la opinión de los sujetos y de las organizaciones más representativas potencialmente afectados por la futura norma acerca de:

**1.- Los problemas que se pretenden solucionar con la iniciativa.**

El Sistema Vasco de servicios sociales, está regulado por la Ley 12/2008 de 5 de diciembre de Servicios sociales. El SVSS se constituye en una red pública articulada de atención, de responsabilidad pública, cuya finalidad es favorecer la integración social, la autonomía y el bienestar social de todas las personas, familias y grupos. Desarrolla una función promotora, preventiva, protectora y asistencial, a través de prestaciones y servicios de naturaleza fundamentalmente personal y relacional.

La Ley 12/2008 de 5 de diciembre de Servicios Sociales, tiene como objetivos principales promover la autonomía personal y atender las

eta mendetasunak eragindako premia pertsonal eta familiarrei erantzutea; babesgabetasun-egoerek eragindako premiei aurrea hartzea eta erantzutea; **bazterkeria-egoerak prebenitzea eta horiei erantzutea, eta pertsonen, familien eta taldeen integrazioa sustatzea**; eta larrialdi-egoerek eragindako premia pertsonal eta familiarrei aurrea hartzea eta erantzutea.

necesidades personales y familiares derivadas de la dependencia; prevenir y atender las necesidades originadas por las situaciones de desprotección; **prevenir y atender las situaciones de exclusión y promover la integración de las personas, familias y grupos**; y prevenir y atender las necesidades personales y familiares originadas por las situaciones de emergencia.

Legeak, 8. artikuluan, arreta emateko eta esku hartzeko eredu bat defendatzen du, erreferentzia gisa ikuspegi komunitarioa eta arretaren hurbiltasuna dituena, eta, ondorioz, besteak beste:

La Ley en su artículo 8, defiende un modelo de atención e intervención que tiene como referencia el enfoque comunitario, de proximidad de la atención y en consecuencia, entre otras cuestiones:

- Baliabideak eta esku-hartzea tokian tokiko erkidegoaren ezaugarrien araberakoak izan daitezen saiatuko da, eta, horretarako, beharrizanak izendatu eta ebaluatzeko orduan, pertsonen eta erakundeen parte-hartzea izango du lagungarri.
- Pertsonak beren ohiko ingurunean artatuko dira.
- Kasu bakoitzerako egokia den esku-hartzea diseinatuko du, beharrizanak ebaluatuz arreta pertsonalizatuko plan baten esparruaren barruan; plan hori, arreta-ibilbideen jarraitasuna eta koherentzia bermatzearren, erabiltzailearen parte-hartzearekin egingo da eta ebaluazioko eta berrikuspen aldizkako mekanismoak jasoko ditu plana pertsonen beharrizanei egokitzen zaien jakiteko.
- Pertsona edo familia bakoitzari erreferentziako profesional bat izendatuko zaio.
- Esku-hartzea interdisziplinarra izatea bermatuko du, arreta integrala eta

- Favorecerá la adaptación de los recursos y las intervenciones a las características de cada comunidad local, contando para ello con la participación de las personas y entidades en la identificación de las necesidades y en su evaluación.
- Posibilitará la atención de las personas en su entorno habitual
- Diseñará el tipo de intervención adecuada a cada caso, sobre la base de una evaluación de necesidades y en el marco de un plan de atención personalizada, que, al objeto de garantizar la coherencia y la continuidad de los itinerarios de atención, deberá elaborarse con la participación de la persona usuaria y deberá incluir mecanismos de evaluación y revisión periódica que permitan verificar la adecuación del plan a la evolución de las necesidades de la persona;
- Asignará a cada persona o familia un profesional o una profesional de referencia
- Garantizará el carácter interdisciplinar de la intervención con el fin de ofrecer una

jarraitasun-irizpideen araberakoa eskaintze aldera.

- Prestazio, zerbitzu, programa eta jarduera guztietan prebentzio-ikuspegi bat sartuko du, eta, ahal dela, gizarte-arriskuak edo -beharrizanak azaldu edo larriagotu baino lehen esku-hartuko du.

Lege honek, gainera, erantzukizun publikoko gizarte-zerbitzuen sistema integratu bat antolatu eta egituratzen du, Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan herritar guztiek Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako prestazioak eta zerbitzuak eskuratzeko duten eskubide subjektiboa bermatzeko, aipatutako sisteman sartzeko baldintza orokorren eta prestazio edo zerbitzu bakoitzerako arautzen diren sarbide-baldintza espezifikoen esparruan.

Zehazki, legeak Eguneko Arreta Zerbitzua GZESaren Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoan sartzen du, lehen mailako arretako zerbitzu gisa (22.1.7 artikulua), eta ezartzen du zerbitzu horiek ematea udaleko gizarte-zerbitzuei dagokiela.

Bere aldetik, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretuak, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legea garatuz, aipatutako eskubide subjektiboa mugatzen du, eta Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen katalogoan ezarritako prestazioak eta zerbitzuak eskuratzeko baldintzak, irizpideak eta prozedurak arautzen ditu.

Gainera, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretuak honela definitzen ditu Eguneko Arreta Zerbitzuak: egunean zehar bertaratu beharreko baliabide bat pertsonen eskura

atención integral y ajustada a criterios de continuidad;

- Incorporará el enfoque preventivo en todas las prestaciones, servicios, programas y actividades, actuando, en la medida de lo posible, antes de que afloren o se agraven los riesgos o necesidades sociales.

Esta ley, además, ordena y estructura un sistema integrado de Servicios Sociales de responsabilidad pública, a fin de garantizar en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco, el derecho subjetivo de toda la ciudadanía de acceso a las prestaciones y servicios del Sistema Vasco de Servicios sociales, dentro del marco de los requisitos generales de acceso al mencionado sistema y de los requisitos de acceso específicos que se regulan para cada prestación o servicio.

En concreto, la ley incluye el Servicio de Atención Diurna en el Catálogo de Prestaciones y Servicios del SVSS, como servicios de atención primaria (art 22.1.7) y establece que su prestación corresponde a los servicios sociales municipales.

A su vez, el Decreto 185/2015, de 6 de octubre, de Cartera de Prestaciones y Servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales, en desarrollo de la Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales, delimita el derecho subjetivo mencionado, regulando las condiciones, criterios y procedimientos de acceso a las prestaciones y servicios establecidos en el catálogo de la Ley de Servicios Sociales.

Además, el Decreto 185/2015 de 6 de octubre, de Cartera de Prestaciones y Servicios del SVSS, define los Servicios de Atención Diurna como servicios que ponen a disposición de las personas un dispositivo al que acudir durante el día, en el que se les ofrece un apoyo de baja intensidad ligado a sus necesidades específicas

jartzen duten zerbitzuak, non intentsitate txikiko laguntza eskaintzen zaien, haien arreta-premia espezifikoei lotuta.

de atención.

Dekretu horrek berak, bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako eguneko arreta-zerbitzuari dagokionez, zehazten du eskakizun txikiko eta aldi baterako erabilerako zerbitzua dela, eta honako eginkizun hauek betetzen dituela:

Ese mismo Decreto especifica en relación al Servicio de Atención Diurna para personas en situación de exclusión que es un servicio de baja exigencia y uso temporal que desarrolla las siguientes funciones:

a) Oinarrizko premiak asetzea, erabiltzaileei egunez babesteko, garbitzeko eta jateko gailu bat eskainiz.

a) Cubrir necesidades básicas ofreciendo a las personas usuarias un dispositivo en el que resguardarse, asearse y comer durante el día.

b) Erabiltzaileei informazioa ematea dituzten eskubideei eta eskura ditzaketen gizarte-baliabideei buruz, bai eta beren egoera normalizatzeko kudeaketak egiten laguntzea ere.

b) Informar a las personas usuarias sobre los derechos que les asisten y los recursos sociales a los que pueden acceder, así como orientarles en la realización de gestiones tendentes a normalizar su situación.

Lezoko, Oiartzun eta Pasaiako udalek urteak daramatzate lankidetza aktiboa izaten eta baliabideak partekatzen dituzte gizarte-bazterkeriako arrisku-egoeran dauden pertsonei arreta emateko. Hala ere, adierazi behar da gaur egun erabilgarri dauden baliabideak ez datozela guztiz bat Zorroari buruzko Dekretuan ezarritako bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako eguneko arreta-zerbitzuaren ereduarekin. Gabezia hori agerian geratzen da bai zerbitzuaren eduki teknikoei dagokienez, bai indarrean dagoen araudiak zehaztutako irizpide funtzionalak eta egiturazkoak betetzeari dagokionez.

Si bien los ayuntamientos de Lezo, Oiartzun y Pasaia mantienen desde hace años una colaboración activa y comparten recursos orientados a la atención de personas en situación de riesgo de exclusión social, es preciso señalar que los dispositivos actualmente disponibles no se adecuan íntegramente al modelo de Servicio de Atención Diurna para personas en situación de exclusión establecido en el Decreto de Cartera. Esta insuficiencia se manifiesta tanto en lo relativo a los contenidos técnicos del servicio como en el cumplimiento de los criterios funcionales y estructurales definidos por la normativa vigente.

Nabarmendu behar da gizarteratzera bideratutako eguneko arreta-zerbitzuen eskariak bere horretan jarraitu duela, eta, gainera, hazkunde nabarmena izan duela azken urteetan. Gainera, aurreikusten da goranzko joera horrek bere horretan jarraituko duela, eta areagotu ere egingo dela etorkizun hurbilean, Oarsoaldea lurralde-eremuaren barruan. Proiekzio hori, besteak beste, eskualdearen kokapen geoestrategikoan oinarritzen da,

Cabe destacar que la demanda de servicios de atención diurna orientados a la inclusión social no solo se ha mantenido de forma constante, sino que ha experimentado un notable incremento en los últimos años. Además, se prevé que esta tendencia al alza continúe e incluso se acentúe en el futuro próximo dentro del ámbito territorial de Oarsoaldea. Esta proyección se fundamenta, entre otros factores, en la localización geoestratégica de la comarca, situada en las proximidades de la frontera con Francia y en un eje de tránsito habitual de

Frantziarekiko mugatik gertu, eta mugikortasun edo igarotze-egoeran dauden pertsonen ohiko igarotze-ardatz batean.

Testuinguru horretan, Lezo, Oiartzun eta Pasaiako udalerrien artean partekatutako Eguneko Arreta Zerbitzua abian jartzea beharrezko jarduera egoki eta legez babestua da, Oarsoaldeko gizarte-bazterkeriaren fenomenoari erantzun integrala eta jasangarria emateko.

Lezo, Oiartzun eta Pasaiako udalerrietan gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsonei zuzendutako Eguneko Arreta Zerbitzua eskualdekatzea da aukerarik egokiena ikuspegi tekniko, ekonomiko eta arautzaile batetik, baliabide publikoen kudeaketa eraginkorragoa eta arrazionalagoa ahalbidetzen baitu. Eredu horrek hiru udalerrietako herritarrentzako arreta ekitatiboa bermatzen du, lurralde-kohesioa eta erakundeen erantzunkidetasuna sustatuz, eta, aldi berean, erakundeen arteko koordinazio eraginkorra errazten du.

Era berean, proposamena guztiz bat dator Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legean jasotako printzipioekin eta foru-plangintzako esparruekin, zeinek udalen arteko lankidetza sustatzen baitute espezializazio ertaineko zerbitzuak emateko, hala nola gizarte-kalteberatasun handiko egoeran dauden kolektiboentzako eguneko arreta.

Zerbitzu horri esker, bazterkeria-egoeran dauden pertsonen eskubide sozialak betetzeko bidean aurrera egiteaz gain, nabarmen lagunduko du pertsona horiek gizarteratze aktiboa lortzen eta bizi-kalitatea hobetzen.

Azkenik, adierazi behar da bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako Lezoko, Oiartzungo, eta Pasaiako Eguneko Arreta Zerbitzuaren araudiak – jendaurrean jartzen

personas en situación de movilidad o tránsito.

En este marco, la puesta en marcha de un Servicio de Atención Diurna compartido entre los municipios de Lezo, Oiartzun y Pasaia se configura como una actuación necesaria, pertinente y respaldada legalmente, orientada a dar una respuesta integral y sostenible al fenómeno de la exclusión social en Oarsoaldea.

La comarcalización del Servicio de Atención Diurna dirigido a personas en situación de exclusión social en los municipios de Lezo, Oiartzun y Pasaia se plantea como la alternativa más adecuada desde una perspectiva técnica, económica y normativa, al posibilitar una gestión más eficiente y racional de los recursos públicos. Este modelo garantiza una atención equitativa para la ciudadanía de los tres municipios, promoviendo la cohesión territorial y la corresponsabilidad institucional, a la vez que facilita una coordinación interinstitucional eficaz.

Asimismo, la propuesta se encuentra plenamente alineada con los principios recogidos en la Ley 12/2008 de Servicios Sociales del País Vasco y con los marcos de planificación foral, que impulsan la cooperación intermunicipal para la provisión de servicios de especialización media, como es el caso de la atención diurna a colectivos en situación de alta vulnerabilidad social.

Este servicio no solo permitirá avanzar en el cumplimiento de los derechos sociales de las personas en situación de exclusión, sino que también contribuirá de manera significativa a su inclusión social activa y a la mejora de su calidad de vida.

Finalmente, es oportuno señalar que el reglamento del Servicio de Atención Diurna para personas en situación de exclusión de Lezo, Oiartzun y Pasaia - que se somete a consulta

denak – ez duela eragozten administrazio horiek laguntza pertsonaleko zerbitzu berriak ezartzea. Organo eskudunaren baimena edukiz gero, baliabide berritzaileak ezarri ahal izango dira pertsonen eta haien bizi-premien arteko oreka egokia bermatzeko, bai eskualdean, bai udalerrian.

Horrela, bada, udal-erregelamendu honek pertsonak zerbitzura sartzeko prozedura eta oinarrizko funtzionamendu-araubidea arautuko ditu.

**2.- Arauaren onespenaren premia eta egokitasuna.**

Gizarte-bazterkeriako egoeran dauden pertsonentzako Eguneko Arreta Zerbitzua eskualdeko ikuspegitik sustatu eta egituratu behar dela kontuan hartuta, Oiartzungo eta Pasaiako Udalekin lankidetzan, Lezoko Udaleko Gizarte Zerbitzuak Sailak araudi espezifiko bat onartzea proposatu du. Ekimen horren helburua da zerbitzuak gaur egun dituen erronkei erantzutea, bai eta kudeaketan gardentasun, eraginkortasun eta kalitate handiagoa bermatzea ere, udalerriko herritarren mesedetan.

**3.- Araudiaren helburuak.**

Araudiaren helburua da Lezo, Oiartzun eta Pasaiako udalerrietan bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako eguneko arreta-zerbitzua arautzea, gizarte-zerbitzuen arloan dituzten eskumenen esparruan.

**4.- Araudi bidezko eta Araudiz besteko zer beste irtenbide izan daitezkeen.**

Zerbitzua arautzeko beste bide batzuk badiren arren, zerbitzua jadanik arauturik dago Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko 185/2015 Dekretuan; beraz, kasu honetan

pública - no imposibilita la implantación de nuevos servicios de asistencia personal por parte de estas Administraciones. Siempre que se cuente con la autorización del órgano competente, podrán implementarse recursos innovadores orientados a garantizar un equilibrio adecuado entre las personas y sus necesidades vitales tanto de forma comarcal, como municipal.

Así pues, este reglamento municipal regulará el procedimiento de acceso de las personas al servicio y su régimen básico de funcionamiento.

**2.- La necesidad y oportunidad de su aprobación.**

Considerando la necesidad de impulsar y estructurar la prestación del Servicio de Atención Diurna para personas en situación de exclusión social desde una perspectiva comarcal, en colaboración con los Ayuntamientos de Oiartzun y Pasaia, el Departamento de Servicios Sociales del Ayuntamiento de Lezo propone la aprobación de un Reglamento específico. Esta iniciativa tiene como objetivo dar respuesta a los desafíos actuales que enfrenta el servicio, así como garantizar una mayor transparencia, eficacia y calidad en su gestión, en beneficio de la ciudadanía del municipio.

**3.- Los objetivos de la norma.**

El objetivo de la norma es regular la prestación del Servicio de Atención Diurna para personas en situación de exclusión en los municipios de Lezo, Oiartzun y Pasaia en el marco de sus competencias en materia de servicios sociales.

**4.- Las posibles soluciones alternativas regulatorias y no regulatorias.**

Aunque cabrían otras alternativas regulatorias, este servicio ya está regulado en el Decreto 185/2015, de 6 de octubre, de Cartera de Prestaciones y Servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales, y se considera que lo más

modurik egokiena da bermaturiko zerbitzu hori eguneratzea eta garatzea.

apropiado es el desarrollo de esta prestación.

**5.- Ekarpenak egiteko epea**

Ekarpenak udalaren sarrera-erregistroaren bidez egin ahal izango dira, irailaren 5a bitarte.

**5.- Plazo de aportaciones**

Las aportaciones se deberán realizar mediante registro de entrada municipal hasta el 5 de septiembre.